

Todos los países bien gobernados como Suiza, y que sedistinguen por un alto grado de civilización, tienen su riqueza pecuaria en un estado floreciente; y esto es una regla sin excepción.

B. CALDERON.

(De *La Naturaleza*)

## Tranpea lotsagarri



Gregorio bizi da geyenez jokuan  
Tranpa, guzurta droga, ganora gaiztuan,  
Beti nori sartuko al badau ziria,  
Bere bizimodua ause da guztia.

Estamauguko miñaz luzaroan gaizki  
Medikurik mediku zanean ibili,  
Joatea beartu zan Doa Faustino gana,  
Entzute aiñ andia daukan aregana,  
Ta konsultaurikoan nekearen sari  
Medikuak eskatu einda peseta bi,  
Ari bere sartzea nairik larakoa,  
Emon eutsan peseta bata ez zintzoa;  
Baña osagarriak ondo jarri eban,  
Beste medikuenak ezinda ezelan.

Urteak joan eta urteak ctorri,  
Gregorio geisotu zan barrien barri;  
Estamauguko miñak eldurik atzera.  
Joatea beartu zan konsulte artzera.

Zuzendu zan barriro Don Faustino gana,  
Zeiñek esaten deutsan bere-bereala:  
—«Gregorio pildorak len zenduzan artu,  
Chikiak asko eta oraiñ obe dozu,

Gaur emongo deutsudan andi bat artzea,  
Nai badozu osasun ona jaristea».

Biurtzean echera papera zabaltzen  
Dau, eta peseta bat bertan dau billatzen,  
Baña paltsoa zanik konturatu baga,  
Medikuari berak beiñ emona zala;  
Biotza estuta bere kautan diño:  
«Ezin nei eztarritik pesetau irago»  
Alan ostera laster doa beregana,  
Esatera irunsi ezin leikeala.

Orduan rmedikuakerantzuten deustsa  
Egoalako guztiz barrutik minduta:  
—¿Pildora ori ezin irunsi ziñaike?  
Nik irunsi nebala dira amar urte.

Gregorio jarri zan chingarra duiñ gorri,  
Zer esan gura eutsan eginda igarri;  
Kontsultarik geyago artu baga laster  
Urten eban ta dabill osasunaz oker;  
Errian bere zelan danak eutsen jakiñ,  
Zar ta gazte guztiak oi deutse barre egin.

*Jakiñaren gañean ez iñor engañau,  
Buruari ez dayon berak batu zor au.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

